


Barrutik barruti!



INDARKERIA MATXISTEN AURREAN JARDUTEKO PROTOKOLOA



**REAS
EUSKADI**
ekonomia alternatibo
eta solidarioa

Barrutik irauli
Indarkeria matxisten aurrean jarduteko protokoloa.

Protokolo hau **BIZIGARRI Planaren** (REAS Euskadi erakundearen eraldaketa feministarako plana) ekintzen barruan kokatzen da. Protokoloa egiteko prozesuan Sortzen-ek lagundu du, genero-indarkerian eta emakumeen ahalduntzean adituak. Eta ekosolfem, sarearen proposamen feminista lantzen duen taldearen ekarpen baliotsuak izan ditu.

Egileak: Sortzen aholkularitza eta REAS Euskadi
Diseinua eta maketazioa: ojobuey.com

Libreki kopiatu, banatu eta komunikatu daiteke obra hau, betiere egiletza aitortzen bada eta merkataritza-helburuetarako erabiltzen ez bada. Obra eratorri bat aldatzen, eraldatzen edo sortzen bada, lizentzia berdinarean pean baino ezin izango da banatu.



REAS Euskadi Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea
Konopoloa. Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Poloa
Harrobia Plaza 4, 2. 48003 Bilbo Bizkaia
944 160 566
reaseuskadi@reaseuskadi.eus
www.reaseuskadi.eus
@REASEuskadi



Aurkibidea

1.	BARRUTIK IRAULI: giza eskubideen eta feminismoen defentsaren aldeko apustua	01
2.	Aplikazio-eremua	03
3.	Hedapena, prebentzioa, detekzio goiztiarra, sentsibilizazioa eta prestakuntza helburu duten ekintzak	05

4.	Jarduteko prozedura	07
4.1.	Prozeduraren bermeak	07
4.2.	Protokoloa aktibatzeke faseak	09
4.1.1.	Jakinarezpena	09
4.1.2.	Jarduteko prozedura	09
	• Kargu-hartzea	10
	• Inguruneke jazarpena eta jokabide arinak. Prozedura informala	10
	• Jokabide larriak eta oso larriak dituen jazarpen pertsonala. Prozedura formala	12
5.	Inplikaturake eragileak eta prozesuan duten rola	15
6.	Erreparazio-neurriak	16

7.	Protokoloen koordinazioa	18
8.	Erakunde bazkide eta laguntzaileen aurkako zehapenak	20
9.	Ebaluazioa eta jarraipena	21
10.	Biktimentzako informazioa	22
11.	Eranskinak	23
	• Erreferentziako araudia	24
	• Definizioen glosarioa	27
	• Sexu-jazarpeneko eta sexuan oinarritutake jazarpeneko jokabideen adibideak	34
	• Lehen sorospen fisiko eta psikologikoak	36



1. BARRUTIK IRAULI:

giza eskubideen eta feminismoen defentsaren aldeko apustua

REAS Euskadik genero-ekitatearekin eta -berdintasunarekin duen konpromisoa ez da etikoa soilik, politikoa ere bada. Barrura begira eta erakunde bazkideei dagokienez, aldaketaren eta eraldaketaren aldeko eragileztat hartzen dugu sarea, baina, gainera, geure gain hartzen dugu erakundeetan eta gizarteko beste partaide guztiengan eragiteko erantzukizuna.

Protokolo honen bidez, gure apustu feminista eta interseksionala ikusarazi nahi dugu, eta erantzuna eman nahi diegu sexu-eraso, -abusu eta -jazarpenei, bai eta sexu- eta genero- diskriminazioei ere, biktimizazioak eta paternalismoak baztertuta eta biktima eta haren errekonfigurazioa azpimarratuta.

Labur esanda, protokolo honen bidez argi utzi nahi dugu REAS Euskadik zero tolerantzia duela sexu-indarkerien eta bereizkerian oinarritutako jazarpenen aurrean, bai barrura begira, bai sektorean eta gizartean, eta erabateko apustua egiten duela giza eskubideen eta feminismoen defentsaren alde.

Hauk dira protokoloaren helburuak:

- Bereizkerian oinarritutako jazarpenaren eta sexu-indarkerien **aurka jarduteko esparru integral** bat abian jartzea, ikuspegi feminista eta interseksionala oinarri hartuta, bai REAS Euskadin, bai haren esku-hartze profesionalaren, aktibistaren eta antolamendukoaren ingurunean.
- REAS Euskadin **zero tolerantziako kultura** ezartzea sexismoaren, sexuari eta generoari lotutako diskriminazioen eta indarkeria matxista eta sexualen aurrean. Era berean, **genero-berdintasuna** — zentzurik zabalenean— eta sexismoaren, diskriminazioen eta sexu-indarkerien prebentzioa REAS Euskadiren eta bere erakundeen funtsezko **balio** bihurtzea.
- Sareko erakundeei **tresnak eskaintzea** portaera horiek ezaba ditzaten, bai barrura begira, bai ingurunearekiko konpromisoaren ikuspegitik.

1. BARRUTIK IRAULI: giza eskubideen eta feminismoen defentsaren aldeko apustua

Protokolo honek erdigunean jarri nahi ditu sexu-jazarpena eta sexuan zein orientazio sexualean oinarritutako jazarpena, helburu hauekin: batetik, emakumeengan eta sexuaren, generoaren edo sexualitatearen binarismoa urratzen duten pertsonengan eragina duten arazoak ez lausotzea, eta, bestetik, ikusgai jartzea etsaitasuna eta indarkeria sorrarazten dituen eta gure erakundeetako pertsonen adierazpen-askatasuna eta lan-garapena mugatzen dituen botere-ardatza. Baina, horrez gain, prozesu hori zabaldu eta beste gogoeta eta/edo jarduera batzuk jorratu nahi ditugu, erakundeen indarkeria matxisten beste adierazpen batzuei heltzeko beren prebentzio-politiketan erantsi ditzaketenak.

Gure asmoa da sarean eta bere erakundeetan aldaketa sakona eragitea, eta, asmo horrekin, protokolo honen bidez prebentzioa ezarri nahi dugu, sexismoa, sexuan eta generoan oinarritutako diskriminazioak, indarkeria matxistak eta, zehazki, sexu- indarkeriak ezabatzeko. Ilde beretik, indarkeria matxisten aurkako borroka REAS Euskadiren ezaugarrietako bat izatea nahi dugu. Horretarako, ikusgai jarri behar ditugu sarearen

esparruan agertzen diren indarkeria matxisten askotariko adierazpenak, arreta berezia jarrita identifikatzen zailak diren horietan, eta agerian utzita, generoaz gain, diskriminazio eta indarkerietan eragina izan dezaketen gainerako kategoriatan interseksionalak: klasea, arrazismoa, jatorria, sexu-aukera, genero-identitatea, gaitasun- dibertsitateak eta abar.

Helburua bestelako erakunde-kultura eraikitzea da, balizko jazarpenak eta erasoak bi pertsonaren arteko gatazkatzat hartuko ez dituen, baizik eta horien inguruan sare osoa inplikaturik duena. Hori lortzeko, REAS Euskadiko kideak eta erakunde bazkideetakoak sentsibilizatu eta inplikatuta behar ditugu.

Protokoloa honako kapitulu hauen inguruan egituratuta dago: lehenengoan, aplikazio-eremua zehaztuko dugu; ondoren, gure sarea osatzen duten pertsonen zuzendutako ekimenak aurkeztuko ditugu, prebentzioa, sentsibilizazioa, detekzio goiztiarra eta prestatutako helburuak; hurrengo kapituluetan, jarduteko prozedura, inplikatutako eragileak, horiek Barrutik Iraulin duten rola, aurreikusitako erreparazio- neurriak eta ebaluazio- eta jarraipen-sistemak azalduko

ditugu, eta, azkenik, baliabideen mapa bat eta EKIM web atarirako sarbidea eskaintzen dira, emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzko informazio erabilgarri guztia zentralizatzen duen tresna espezializatua.

Eranskinek honako hauek jasotzen dituzte: protokolo honetarako erreferentziazko araudiaren informazioa; indarkeria matxisten konplexutasunera hurbiltzeko glosario bat; sexu-jazarpeneko eta sexuan oinarritutako jazarpeneko jokabide posibleen zerrenda eta lehen laguntza fisiko eta psikologikoak eskaintzeko gako batzuk.

2. APLIKAZIO-EREMUA

NON, NOR ETA BABES-MAILA


Protokolo honen aplikazio-eremuak honako hauek hartuko ditu barne: REAS Euskadi elkartearen eta haren erakunde bazkideen jarduerak eta instalazioak, elkarte osatzen duten kanpoko espazioak, eta haren unibertso bizikidetza-, interakzio- eta aisialdi-guneak. Babesa atzerriraino ere iritsiko da, beste herrialde batzuetan lan-jarduerak bete behar dituztenentzat. Beraz, hauei aplikatuko zaie:


- REAS Euskadi elkarteko langileak, bekadunak, praktiketakoak eta boluntarioak.
- REAS Euskadi sareko erakunde bazkidetako langileak, bekadunak, praktiketakoak eta atzerriratuak.
- REAS Euskadiko erakunde bazkideetako boluntarioak, betiere elkartearen berezko gune, prestakuntza edo jarduera batean badaude.
- REAS Euskadiren hornitzaileak, erabiltzaileak, bazkideak edo bezeroak, baldin eta diskriminazioa, jazarpena edo bestelako indarkeria jasan badute elkarteko edo erakunde bazkideetako langile lan-kontratudunen baten aldetik.
- Jardueretan eta prestakuntza-zikloetan parte hartzen duten langileak, baldin eta jarduera horiek REAS Euskadiren egoitzan —gaur egun, EKONOPOLoa da— egiten badira.

2. APLIKAZIO-EREMUA

Hainbat babes-maila daude, REAS Euskadi sareari lotutako oinarri sozialaren konplexutasuna eta zabaltasuna direla eta.

Gai hori argitzeko, bi irudi erakutsiko ditugu: batean, protokoloaren eraginpean dauden talde guztiak ageri dira; bestean, berriz, horien babes-maila, REAS Euskadik indarkeria matxisten aurrean jarduteko abian jarri duen Barrutik Irauli protokoloaren barruan.





3. HEDAPENA, PREBENTZIOA, DETEKZIO

GOIZTIARRA, SENTSIBILIZAZIOA ETA PRESTAKUNTZA HELBURU DUTEN EKINTZAK

Protokolo honetan funtsezkoa da indarkeria, diskriminazioa eta jazarpena gertatu aurretik jardutea. REAS Euskadik hainbat ekintza gauzatuko ditu, jazarpenari, indarkeriari eta diskriminazioari lotutako egoeren prebentzioa, sentsibilizazioa, detekzio goiztiarra eta prestakuntza helburu dutenak. Xedeak: bere eraginpeko komunitatea informatu eta sentsibilizatzea, eta sarea osatzen duten pertsonak eta erakundeak trebatu eta prestatzea.

Neurri horien bidez, genero-berdintasuna eta -dibertsitatea eta sexu-orientazioa errespetatuko dituen kultura sustatu nahi du, bai eta indarkeriarik gabeko giro inklusiboa eraiki ere.



HEDAPEN-, PREBENTZIO- ETA SENTSIBILIZAZIO-EKINTZAK

- Protokoloa REAS Euskadiren webgunearen bidez hedatuko da, eta aurkezpen-jardunaldi bat, irakurketa errazeko infografia bat nahiz beste euskarri batzuk prestatuko dira, protokoloa sareko erakundearen artean zabaltzeko. Material guztiak euskaraz zein gaztelaniaz egongo dira eskuragarri.
- Mezu elektroniko bat bidaliko zaie REAS Euskadiko erakunde bazkideei, baita erakunde laguntzaile, hornitzaile, administrazio publiko, nazioarteko erakunde aliatu eta abarretako ordezkari guztiei ere.
- Protokoloa REAS Euskadi elkartearen harrera-eskuliburuetan sartuko da.
- Erakunde bazkideek protokoloarekin bat egiteko prozesua diseinatu eta hedatuko da; besteak beste, erakundeek konpromisoa hartu beharko dute indarkeriei buruzko prestakuntza egiteko eta protokoloa bere partaideen artean hedatzeko.

3. HEDAPENA, PREBENTZIOA, DETEKZIO GOIZTIARRA, SENTSIBILIZAZIOA ETA PRESTAKUNTZA HELBURU DUTEN EKINTZAK

- Gutxienez urtebetez, indarkeria matxisten aurkako prebentzio- eta jarduera-protokoloari buruzko Informazioa agertuko da REAS Euskadik jarduten duen espazio guztietan.
- Protokoloaren berri emango zaie REAS Euskadiren EKONOPOLoko egoitzan parte hartzen duten guztiei.

DETEKZIO GOIZTIARREKO EKINTZAK

Indarkeria-adierazleak erantsiko dira sarearen barruko neurketa-ekintzetan (auditoria sozialeko adierazle berriak, hainbat diagnostikori buruzko galde-sortak, erakunde bazkideei kontsultak egitea, lantaldeak eta abar), jazarpenari, indarkeriari eta diskriminazioari lotutako egoeren detekzio goiztiarra sustatzeko helburuz. Emaitez indarkeriazko portaerak edo jarrerak erakutsiz gero, diagnostiko sakonagoa egingo da.

PRESTAKUNTZA-EKINTZAK

Protokolo honen esparruan, REAS Euskadik prestakuntza irekia programatuko du aldian behin protokoloaren aplikazio-eremuan identifikatutako espazio eta pertsona guztientzat. Prestakuntza hori nahitaezkoa izango da protokoloari atxikitako REAS Euskadiko erakunde guztientzat, eta borondatezkoa gainerakoentzat.

Helburu bikoitza izango dute prestakuntza-ekintzek: batetik, indarkeria matxisten konplexutasunaren inguruko ezagutza eta gogoetan sakontzea; bestetik, Barrutik Irauli hedatzen jarraitzea.

Erakunde berriek (hau da, 2024ko martxotik aurrera REAS Euskadira bazkide gisa sartzen direnek) prestakuntza hori egiteko konpromisoa hartu beharko dute. Prestakuntza aurrez aurre eta online eskainiko da ordutegi desberdinetan, bertaratuen beharrak kontuan hartuta (batez ere, zaintzari, dibertsitate funtzionalari eta hizkuntzari lotutakoak), parte-hartzea errazteko.



Baldin eta, prebentzio-neurriak gorabehera, diskriminazioa, jazarpena eta/edo indarkeria dakarren jokabideren bat gertatzen bada, protokolo honetan ezarritako jarduteko prozedura aktibatuko da. Prozedura aurkeztu aurretik, elementu garrantzitsu bat aipatu behar dugu: prozedura orok oinarri izan behar dituen bermeak.

4.1. PROZEDURAREN BERMEAK

- **Errespetua.** Inplikaturako pertsona guztiekiko errespetu osoz burutuko dira jarduketak eta izapideak, betiere berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatuta.
- **Konfidentzialtasuna.** Prozeduran parte hartzen duten pertsona guztiek idatzizko konpromisoa hartuko dute harekiko isiltasuna eta konfidentzialtasuna gordetzeko.
- **Babesa.** Inplikaturako pertsonen osasuna eta babesa zaintzeko behar diren neurriak hartuko dira, beharren eta prozedura-fasearen arabera.
- **Sinesgarritasuna.** Gertaeren jakinarazpena, kexa edo salaketa aurkeztu duen pertsonaren sinesgarritasuna izango da beti abiapuntua.

4. JARDUTEKO PROZEDURA

- **Birbiktimizaziorik eza.** Ahal dela, saihestu egingo da gertaeren kontaketa errepikatzea, salatzailea jendaurrean jartzea eta hura identifikatzeko datuak ematea.
- **Laguntza.** Bai biktimak bai salatutako pertsonak aukera izango dute beren konfiantzako norbaitek prozedura guztian zehar laguntzeko.
- **Ardura eta azkartasuna.** Prozedura behar besteko arduraz burutuko da, justifikatu gabeko atzerapenik gabe eta lehentasunezko arretarekin.
- **Irisgarritasuna.** Indarkeria matxisten aurrean jarduteko Barrutik Irauli protokoloari buruzko informazio guztia argitaratuta egongo da, bai eta haren prozedurari buruzkoa eta Aholkularitza Konfidentzialaren osakerari, funtzioei eta harremanetarako bideei buruzkoa ere, eta protokoloaren babespean dauden pertsona guztiek izango dute eskura.
- **Informazioa.** Prozeduran inplikaturako alde guztiek informazioa jaso ahal izango dute beren eskubide eta betebeharrei buruz, prozeduraren faseari buruz eta egindako jarduketan emaitzari buruz.
- **Errepresalien debekua.** Debekeatuta dago errepresaliak hartzea jazarpena, indarkeria eta/edo diskriminazioa salatzen duten pertsonen aurka, lekuko gisa parte hartzen dutenen aurka eta ikerketetan parte hartzen dutenen aurka. Horrelakorik gertatuz gero, pertsona horiek Ikerketa Batzordeari ezagutarazi ahal izango diote gertatutakoa, gertaerak ebaluatu, artatu eta indargabetu ditzan.



4.2. PROTOKOLOA AKTIBATZEKO FASEAK

4.2.1. JAKINARAZPENA

Protokolo honen aplikazio-eremuan dauden pertsona guztiek Aholkularitza Konfidentzialari eman ahal izango diote ustezko jazarpena, indarkeria edo diskriminazioa jasan izanaren berri, bai eta jokabide horien lekuko izan den beste edonork ere, ahoz edo idatziz, ezarritako harreman-bideak erabiliz.

AHOLKULARITZA KONFIDENTZIALA:
barrutikirauli@reaseuskadi.eus

Zaloe Pérez 613 319 461

Eva Saenz de Ugarte 656 702 965

Amaia Naveda 944 160 566

Aholkularitza Konfidentzialeko hiru titularretako edozeinekin jar daiteke harremanetan jokabide horien biktima edo kexa edo salaketa aurkezten duena. Hiru pertsona horietako bakoitzak ordezkotatu du esleituta, baldin eta prozeduran parte hartzerik ez badu.

4.2.2. JARDUTEKO PROZEDURA

Aholkularitza Konfidentzialak jakinarazpen bat jasotzen badu, edo jazarpena, indarkeria edo diskriminazioa izan daitekeen gertaeraren baten berri badu, lehenbailehen jarriko da harremanetan ukitutako pertsonarekin, **hasierako elkarrizketa** programatzeko.

Jakinaraziko dio bere konfiantzako beste pertsona batekin joan ahal izango dela elkarrizketa horretara nahiz hurrengoetara.

Biktima protokolo propioa duen erakunde bateko kidea bada baina, hala ere, REAS Euskadirena erabiltzea erabakitzen badu, erreferentziako erakundeari emango zaio horren berri, betiere biktimaren adostasunarekin, bi erakundeen artean koordinazioa eta, dagokionean, erreparazioa behar bezala bideratzeko.

Aholkularitza Konfidentzialak hau egingo du hasierako elkarrizketan:

- Prozedura honen berri emango dio biktimari, haren faseak eta bermeak azalduz.
- Dagozkion eskubide, aukera eta ekintzei buruzko orientazioa eta aholkua eskainiko dizkio.
- Jakinarazitako gertaerak, inplikaturako pertsonak, dauden lekukoak eta beste frogak

batzuk zehazten eta kontakizuna idazten lagunduko dio ukitutako pertsonari (edo pertsonari).

- Konfidentzialtasun-hitzarmen bat sinatuko da, une horretatik aurrera prozeduran parte hartzen duten guztiek izenpetuko dutena.
- Zerbitzu medikora laguntzeko aukera eskainiko dio.
- Laguntza juridikoa eta psikologikoa eskaintzen dituzten doako baliabideen berri emango dio.
- Nahitaezko kautelazko neurriak proposatuko ditu, ukitutako pertsonaren (edo pertsonen) beharren arabera harekin adostuta. Horretarako, baimena eskatuko dio, neurri horiek betearazteko ardura duten pertsonari ere gertatutakoaren berri emateko.

Era berean, jakinaraziko dio jarduteko protokolo hau aktibatzeak ez duela inolara ere baztertzeko, mugatzen edo baldintzatzen eskubidez dagoen prozedura judiziala.

Aholkularitza Konfidentzialak beharrezkotzat jotzen dituen harremanak izango ditu ukitutako pertsonarekin (edo pertsonekin), kasu bakoitzaren inguruabarrak eta premiak kontuan hartuta.

Ukitutako pertsonak (edo pertsonak) hasierako elkarrizketaren ondoren protokoloa aktibatu nahi ez badu, Aholkularitza Konfidentzialak errespetatu egingo ditu haren erabakia eta eritmoak.

Azkenik, salatutako jokabidea REAS Euskadiren Zuzendaritza Batzordeko kideren bati badagokio, baztertu egingo da kargutik, harik eta ikerketa-prozedura amaitu arte.

Jasotako informazioarekin aurretiko balorazio-txostena egingo du Aholkularitza Konfidentzialak, non jazarpen-mota eta horren ondorioz abian jarri beharreko berariazko prozedura zehaztuko baititu. Kasu larrietan, Aholkularitza Konfidentzialak prozedura formala aktibatu ahal izango du eta, beraz, Ikerketa Batzordea osatu, betiere biktimaren adostasunarekin.

Jarraian zehaztuko ditugun hiru egoera hauek sor daitezke:

 KARGU-HARTZEA

Inguruneke jazarpenzat har daitekeen jokabidea bada eta **akusazio pertsonalik** ez badago, Aholkularitza Konfidentzialak organo arduradunari emango dio gertaeren eta ustezko erantzuleen berri, dagozkion kargu-hartzeak egin ditzan.

Gertaeren egilea identifikatu ezean, langile guztiei emango zaie gertaeren eta dagozkien neurrien berri.

Informazioa nork eman duen ez da inoiz ere jakinaraziko.

 INGURUNEKE JAZARPENA ETA JOKABIDE ARINAK. PROZEDURA INFORMALA

Prozedura informalaren helburua arazoa estraofizialki konpontzea da, azalduetako jokabideak arinak direnean.

Izan ere, batzuetan, arazoa konpontzeko, nahikoa da subjektu aktiboari bere portaeraren eragin iraingarriak eta larderiazkoak eta izan ditzakeen ondorioak adieraztea.

Bi kasu hauetan hasiko da prozedura informala: auzia aurkezten duen pertsonak, hasierako elkarrizketaren ondoren, bide hori aukeratzeko badu, kexaren xede den pertsonarekin negoziatuz edo bitartekaritza eginez konpon daitekeelakoan; eta Aholkularitza Konfidentzialak, jokabideen sistematikotasuna eta biktimen gaineko inpaktua kontuan hartuta, jokabide arinak direla uste badu.

Aholkularitza Konfidentzialak jokabide kaltegarrien parte aurkezten duen pertsonaren sinesgarritasuna izan behar du abiapuntu, eta prozeduraren konfidentzialtasuna zein pertsonen duintasuna babestu behar ditu. Horretarako, ukitutako alderdiei zenbakizko kodeak esleituko dizkie prozeduraren hasieran, kasu-tipologia hori dokumentatzeko helburuz.

4. JARDUTEKO PROZEDURA

Ondoren, partean salatutako pertsonarekin jarriko da harremanetan konfidentzialki (berarekin bakarrik edo biktima ere bertan dela, azken horrek nahi badu), zera adierazteko: alde batetik, haren jokabidearen aurkako parte bat dagoela, eta, bestetik, egoera horrek ondorioak edo neurri zuzentzaileak ekar diezazkiokeela. Zeregin horietarako, erreferentziako pertsona bat izendatuko du Aholkularitza Konfidentzialak, eta, prozedura hasten denean, pertsona horrekin bakarrik jardungo du biktimak, nahi badu.

Konpontzeko prozedura informal horretan, Aholkularitza Konfidentzialak kexaren berri emango dio jokabide desegokiaren egileari, bai eta jokabideari eutsiz gero jasan ditzakeen neurri zuzentzaileen berri ere. Hori guztia idatzita gordeko da, jakinarazpen gisa. Bere jokabideagatik salatutako pertsonak egoki deritzen azalpenak eman ahal izango ditu.

Prozedura 7 lanegunetan burutuko da gehienez. Behar izanez gero, beste 3 lanegunetan luzatu ahal izango da epe hori. Prozedura informalaren emaitza jaso eta gero, horren ondorioen txostena egingo du Aholkularitza Konfidentzialak, eta horren berri emango dio berehala REAS Euskadiko Zuzendaritza Batzordeari.



4. JARDUTEKO PROZEDURA

JOKABIDE LARRIAK ETA OSO LARRIAK DITUEN JAZARPEN PERTSONALA. PROZEDURA FORMALA

Prozesuaren hasiera: komunikazio-fasea

Honako egoera hauetan aktibatzen da prozedura formala:

- Salatutako jarduketak jazarpen larritzat edo oso larritzat har badaitezke.
- Salatzailea prozedura informalaren bidez lortutako konponbidearekin gustura ez badago.
- Salatutako jokabideak behin eta berriro gertatzen badira.

Kasu horietan, salaketa formala aurkeztu ahal izango du biktimak, salatutako pertsonak izan ditzakeen erantzukizunak eta aplikatu dakizkiokeen neurri zuzentzaileak argitze aldera, betiere Lan Ikuskaritzan edo bide zibilean, penalean, lan-arlokoan edo administrazioarekiko auzietan salaketa jartzeko eskubidea alde batera utzi gabe.

Salaketa ahoz nahiz idatziz aurkeztu ahal izango du, Aholkularitza Konfidentzialaren

aurrean. Dena dela, aurretik prozedura informalarik jarraitu bazaio, idatziz jaso beharko da prozedura formalarik hasiera emango dion salaketak.


Aholkularitza Konfidentzialak ahalik eta seriotasun eta konfidentziasun handiena bermatu beharko du salaketa formal guztietan, konfidentziasun-hitzarmenak sinatuta. Gainera, laguntza emango dio biktimari salaketa idaztean, eta jakinaraziko dio konfiantzako norbaitekin joan ahal izango dela elkarrizketetara.

Hasierako elkarrizketatik 10 laneguneko epean —epe hori beste 10 lanegunetz luzatu ahal izango da gehienez—, Aholkularitza Konfidentzialak aurretiko txostena egingo du, non jokabidearen larritasuna tipifikatuko baitu, eta Ikerketa Batzordeari bidaliko dio, ukitutako pertsonaren (edo pertsonen) idatzizko salaketarekin batera. Horrek hasiera emango dio ikerketa-faseari. Honako hauek jaso beharko ditu Aholkularitza Konfidentzialaren txostenak:

- Ukitutako pertsonaren (edo pertsonen) identifikazioa, identifikazio-kode eta guzti.

- Salatutako pertsonaren (edo pertsonen) identifikazioa, zenbakizko identifikazio-kode eta guzti.
- Gertaeren kontakizuna, inplikaturako beste pertsona edo lekuko batzuk, zenbakizko identifikazio-kode eta guzti, eta beste frogabide dokumental edo telematikoko batzuk.
- Ukitutako pertsonaren (edo pertsonen) osasun-egoera (inpaktua) eta premiak.
- Inplikaturako pertsona guztien konfidentziasun-hitzarmenak.
- Proposatutako kautelazko neurriak, behar izanez gero.

REAS Euskaditik kautelazko neurriak ezartzeko gaitasuna REAS Euskadik kontratatutako langileek eta REAS Euskadiko gune fisikoek bakarrik dute, baita protokolo honi atxikitako erakunde bazkideek ere.



4. JARDUTEKO PROZEDURA

Aholkularitza Konfidentzialak uste badu kautelazko neurriak beharrezkoak eta egokiak direla, REAS Euskadiko Zuzendaritza Batzordeari jakinaraziko dio konfidentzialki, horrek, behar izanez gero, Aholkularitza Konfidentzialesetik proposatutako kautelazko neurriak ezar ditzan. Neurri horiek ezin izango diote inola ere kalterik edo funtsezko aldaketarik eragin biktimari, lan-baldintzei dagokienez.

Gaian espezializatutako kanpoko adituen laguntza jaso ahal izango dute bai ukitutako pertsonak bai Aholkularitza Konfidentzialak, prozeduraren edozein momentutan. Ahal dela, REAS Euskaditik kanpoko aditu horiek osatuko dute Ikerketa Batzordea.

Prozedura: ikerketa-fasea

Ikerketa Batzordeak hasiera emango dio ikerketa-faseari, behin ukitutako pertsonaren (edo pertsonen) idatzizko salaketa eta Aholkularitza Konfidentzialaren balorazio-txostena jasotzen dituenean.

Dokumentazioa jasotakoan, Ikerketa Batzordeak bere kide guztien berri emango die auzian inplikaturako aldeei. Alde inplikatuak 5 laneguneko epea izango dute errekusazio- eta abstentzio-alegazioak aurkezteko, baldin eta, haien ustez, Ikerketa Batzordeko pertsonaren batek ez badu batzordeko kide izan behar. Errekusazioaren arrazoiak ere aurkeztu beharko dituzte, kasu horretan. Era berean, aldeetako edozeinek beste edozein alegazio aurkeztu ahal izango du Ikerketa Batzordeari buruz.

Epe hori igarotakoan, Ikerketa Batzordearen behin betiko eraketaren eta huraosatzen duten pertsonen berri emango zaie inplikaturako aldeei.

Ikerketa Batzordeak lehenbailehen bildu beharko du, salaketa aztertu eta ikerketa egin ahal izateko beharrezkoak diren ekintzak zehazteko. Erabakiak gehiengo soilez hartuko ditu, salbu eta salaketa artxibatzeke erabakia. Hain zuzen, protokolo honek aintzat hartzen dituen baldintza materialak betetzen ez direlako edo salatutako gertaeren

inguruko ikerketari ekiteko nahikoa zantzurik ez dagoela irizten diolako erabaki ahal izango du Ikerketa Batzordeak salaketa artxibatzea.

Ikerketa Batzordeak 20 laneguneko epea izango du —kasuaren inguruabarren arabera, gehienez beste 20 lanegunehar luzatu ahal izango da epea— behar adina bilera egiteko inplikaturako aldeekin eta balizko beste pertsona inplikatu edo lekuko batzuekin, baita dauden dokumentu-froga guztiak aztertzeke ere.

Prozesuaren amaiera

Ikerketa Batzordeak, bere jarduketak amaitutakoan, gehiengo soilez hartuko du jazarpenari, indarkeriari eta/edo diskriminazioari lotutako jokabideari buruzko erabakia.

Batzordeak 7 laneguneko epea izango du ebazpen-txostena egiteko, eta honako hauek jasoko ditu bertan:

4. JARDUTEKO PROZEDURA

- Aldeen identifikazioa, zenbakizko identifikazio-kode eta guzti.
- Ikerketa egiten eta txostena idazten parte hartu duten pertsonen izen-zerrenda.
- Kasuaren aurrekariak, salaketa eta inguruabarrak.
- Egindako jarduketak: aztertutako frogak eta egindako elkarrizketen aktak.
- Ikerketaren ondorioak eta proposatutako neurri zuzentzaileak.

Ikerketa Batzordearen **ebazpen-txostena** loteslea izango da, baldin eta diskriminazioari, jazarpenari eta/edo indarkeriari lotutako jokabideak berresten baditu.

Prozedura: azken fasea


Txostena REAS Euskadiren Zuzendaritza Batzordeari bidaliko zaio berehala, horrek egoki deritzen neurri zuzentzaileak har ditzan. Neurriok 7 laneguneko epean hartuko dira gehienez.

Bermatuko da ez dela errepresaliarik hartuko ikerketetan salatzen, lekukotza egiten, laguntzen edo parte hartzen duten pertsonen aurka, ezta horrelako jokabideak gaitzesten edo horiei aurre egiten dieten pertsonen aurka ere.

Errepresaliarik edo lan-kalterik gertatu baldin bada biktimak jazarpena, indarkeria eta/edo larderia jasaten zuen bitartean, errepresaliak

edo lan-kalteak gertatu aurreko egoerara lehengoratu da biktima.

Ikerketa Batzordeak salaketa funtsezkotzat hartzeke adina froga biltzen ez badu, salatzailea ezin izango da behartu salatuarekin borondatez kontra lan egitera.






Aholkularitza Konfidentziala. Organo horrek 3 kide (eta 3 ordezk) ditu, eta honako zeregin hau du: protokolo honen aplikazio-eremuan sartzen diren pertsonen jasandako jazarpena, indarkeria edo diskriminazioa dela-eta aurkezten dituzten kexak edo salaketak jasotzea. Aholkularitza Konfidentzialari dagokio hasierako elkarrizketa egitea, baita aurretiko balorazio-txostena idazteko behar diren harreman guztiak bideratzea ere. Txostenak zehatz-mehatz jasoko du zer jazarpen-mota izan den eta, ondorioz, zer prozedura-mota proposatzen den, bai eta, dagokionean, biktima (edo biktimak) babesteko proposatzen diren kautelazko neurriak ere. Kasu larrietan, Aholkularitza Konfidentzialak prozedura formala aktibatu ahal izango du, eta, beraz, Ikerketa Batzordea osatu, betiere biktimaren adostasunarekin.

Ikerketa Batzordea. Prozedura formala abian jartzen den kasuetan (hau da, kasu larrietan edo oso larrietan) baino ez da aktibatzen batzorde hori. Ahal dela, saretik kanpoko adituek osatuko dute Ikerketa Batzordea. Haren eginkizuna: salaketa aztertzea eta ikerketa egin ahal izateko beharrezkoak diren ekintzak zehaztea. Batzordeak ebazpen-txostena idatziko du, Zuzendaritza Batzordeari bidaliko zaiona. Txosten hori loteslea izango da, baldin eta diskriminazioari, jazarpenari edo/eta indarkeriari lotutako jokabideak berresten baditu.

Zuzendaritza Batzordea. Aholkularitza Konfidentzialak (kautelazko neurriak) edo Ikerketa Batzordeak (neurri zuzentzaileak, erreparazio-neurriak eta abar) proposatutako neurriak onartzeko arduraduna da.



6. ERREPARAZIO-NEURRIAK

Indarkeriak, jazarpenak eta diskriminazioak, lehenik eta behin, biktimari eragiten diote, baina, horrez gain, lan-giroan ere dute eragina, eta lan-giroa erakunde-kulturaren osagarri garrantzitsua da.

Hori dela eta, abian jartzen diren neurriez gain, erreparazio-neurriak ere hartuko dira biktimentzat, ukitutako pertsonentzat eta erakunde-sare osoarentzat. Izan ere, indarkeriari, jazarpenari eta diskriminazioari lotutako egoerak gardentasunez bideratzea oso modu eraginkorra da lan-harremanak hobetzeko eta indarkeria matxistarik gabeko erakunde eta espazioen bidean aurrera egiteko.

Helburu horrekin, biktimentzako beharrezko erreparazio-neurriak diseinatuko dira, bi mota hauetakoak:

ERREPARAZIO PERTSONALA

Biktimari (edo biktimei) adierazten dituen beharrak betetzen laguntzea.

Hona hemen har daitezkeen erreparazio pertsonaleko neurrien adibideak:

- Gertaerak eta horien ebazpena ezagutaraztea, eta biktima prozesuan inplikatzeko, berak nahi duen neurrian.
- Biktimaren tratamendu psikologikoaren gastuak ordaintzea, berak eskatzen badu eta egoki irizte badio, betiere haren konfiantzako profesional batekin.
- Diruzko kalte-ordaina ematea laneko kalteengatik edo kalte moralengatik.
- Ukitutako inguruneari arreta morala edo psikologikoa emateko eskaerei erantzutea.
- Kasua dokumentatzea, jendaurrean azaltzeko aurkitutako erresistentziak eta zailtasunak azpimarratuz, erakundearen historiaren zati bat bezala ezagutarazteko.

ERREPARAZIO KOLEKTIBOA

Erakundeen sarearen erreparazioa. Ondoren azaltzen diren neurriak har daitezke aintzat.

Hona hemen har daitezkeen erreparazio kolektiboko neurrien adibideak:

- Inplikaturako pertsonak edo arduradunek gertakariak eta horien ebazpena jendaurrean eta idatziz aitortzea.
- Gardentasun-saioak: langile guztien bilerak —ahal dela talde txikietan—, protokoloaren aktibazioaren eta emaitzen berri emateko, eta langile zein ukitutako pertsonen ezinegonaren adierazteko.
- Jazarpenari eta horren adierazpen, arrazoi eta ondorio guztiei buruzko prestakuntza-saioak ematea.
- Laneko arriskuen prebentzio-mekanismoak hobetzea, jazarpenaren forma guztiak berariaz erantsiz.
- Arreta indibiduala edo kolektiboko zerbitzua abian jartzea, langileek jazarpen-prozesuari eta horren ebazpenari buruz egiten dituzten galderei erantzuteko.

REAS Euskadiri eta protokolo honi atxikitako erakunde guztien erantzukizuna da Ikerketa Batzordearen ebazpen-txostenak proposatzen dituen erreparazio-neurrietakoren bat ordaintzeko konpromisoa hartzea, betiere jokabide bortitza, diskriminatzailea eta/edo jazarpenezkoa izan duen pertsona plantillakoa bada. Gauza bera gertatuko da protokoloen koordinazioa dagoenean.

Azkenik, eta kontuan harturik REAS Euskadi sareko zenbait erakundek badituztela sexu-jazarpenaren, sexuan oinarritutako jazarpenaren eta/edo indarkeria matxisten aurrean prebenitzeko eta jarduteko protokolo propioak, **protokoloak koordinatzeko** sistema bat zehaztu beharra dago.

«Protokoloen koordinazioa» diogunean, hau adierazi nahi dugu: bi erakunde desberdinen protokoloak aktibatzea, erakunde horietako batek beste erakundean lan profesionalak egiten dituen pertsona batek (edo batzuek) egindako diskriminazioaren, jazarpenaren edo indarkeriaren berri jasotzen duenean, egoera horren biktimak (edo biktimek) jakinarazita.

Barrutik Irauliren aplikazio-eremuaren barruan dagoen norbaitek protokoloa aktibatzeke eskatzen badu, Barrutik Irauliren aplikazio-eremuaren barruan ez dagoen baina bere erakundearen —REAS Euskadi sareko erakundea bada— protokoloaren aplikazio-eremuaren barruan dagoen pertsona baten edo batzuen jokabide diskriminatzaile, bortitz edo jazarpenekoak jasaten ari delako, bi protokoloak aktibatu beharko dira, honela:

1. Biktimak REAS Euskadiren protokoloa aktibatzea. REAS Euskadik Aholkularitza Konfidentzialaren funtzioak hartuko ditu bere gain, eta laguntza, informazioa, baliabideak eta akonpainamendua emango dizkio biktimari.

Era berean, akusatuaren erakundeari bere protokoloa aktibatzeke eta akusatuari salaketaren berri emateko esango dio.

2. Akusatuak lan profesionala egiten duen erakundeak bere protokoloa aktibatzea. Erakundeak lehenbailehen aktibatuko du bere protokoloa, eta Ikerketa Batzordea eratu. Baldin eta ikerketaren bidez akusatuaren jokabide diskriminatzaileak, jazarpenekoak edo bortitzak gertatu direla ondorioztatzen bada, akusatuaren erakundeak izango du dagozkion zehapenak edo neurri zuzentzaileak ezartzeko ardura.

Berdin jokatu da akusatua Barrutik Irauliren aplikazio-eremuaren barruan eta, horrez gain, bere lan profesionalak egiten dituen erakundearen protokoloaren aplikazio-eremuaren barruan badago.

Baldin eta biktimak bere zeregina betetzen duen erakundearen protokoloa aktibatzeko eskatzen badu eta akusatua Barrutik Irauliren aplikazio-eremuaren barruan badago, aurreko koordinazio-eskema alderantziz aplikatuko da, honela:


1. Biktimak bere entitatearen protokoloa aktibatzea. Erakundeak Aholkularitza Konfidentzialaren funtzioak hartuko ditu bere gain, eta laguntza, informazioa, baliabideak eta akonpainamendua emango dizkio biktimari.

Era berean, REAS Euskadiri Barrutik Irauli aktibatzeko eta akusatuari salaketaren berri emateko esango dio.

2. REAS Euskadik bere protokoloa aktibatzea. REAS Euskadik lehenbailehen aktibatuko du bere protokoloa, eta Ikerketa Batzordea eratuko. Baldin eta ikerketaren bidez akusatuaren jokabide diskriminatzaileak, jazarpenekoak edo bortitzak gertatu direla ondorioztatzen bada, REAS Euskadik izango du dagozkion zehapenak edo neurri zuzentzaileak ezartzeko ardura.

Baldin eta biktimak (edo biktimek) REAS Euskadiren protokolora jotzen badu, nahiz eta eraso protokolo propioa duen REAS Euskadiko erakunde bazkide edo laguntzaile batean gertatu, bi protokoloen koordinazioa egingo da.

Koordinazio horren arabera, REAS Euskadi biktimari (edo biktimei) babesa eta laguntza emateaz arduratuko da, eta eraso gertatu den beste erakundeak ikerketak egingo ditu eta dagozkion zehapenak ezarriko dizkio arduradunari (edo arduradunei).



8. ERAKUNDE BAZKIDE ETA

LAGUNTZAILEEN AURKAKO ZEHAPENAK

Baldin eta REAS Euskadiren erakunde kolaboratzaile bateko norbaitek eraso, diskriminazioa edo indarkeria egiten badu REAS Euskadiren erakunde bazkide bateko norbaiten kontra, REAS Euskaditik kanporatzea izango da erakunde laguntzailearen zigorra, betiere jokabide erasotzailea, diskriminatzailea eta/edo bortitza zuzentzeko inolako neurririk hartzen ez badu.

Baldin eta REAS Euskadiren protokoloari atxikitako erakunde bazkide bateko norbaitek eraso, diskriminazioa edo indarkeria egiten badu REAS Euskadiren beste erakunde bazkide bateko norbaiten kontra, biktimak Barrutik Irauli aktibatzen badu eta, ikerketaren ondorioz, jokabide horiek egiaztatzen badira, REAS Euskadik neurri zuzentzaileak ezarriko dizkio lehenengo erakundeari, eta horrek onartzen eta ezartzen ez baditu neurri horiek, REAS Euskadi saretik kanporatzea izango da erakunde horren zigorra.

9. EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA

REAS Euskadik protokolo honen esparruan artatzen diren kasu eta prozesu guztien ebaluazioa eta jarraipena egingo ditu, eta urteko txostena egingo du garrantzitsutzat hartzen duen informazioarekin.

Urtean behin hartu ahal izango da, halaber, REAS Euskadik indarkeria matxisten aurrean jarduteko Barrutik Irauli protokoloa eguneratzeko erabakia. Era berean, REAS Euskadik sare osoan eragina izango duen jardunbide edo jokabide egokien kodea sortu ala ez erabakiko du. Baiezekoan, prestakuntza-saio bat egingo du, jokabide erasotzaile, diskriminatzaile eta/edo bortitz arinen inguruko akordioak finkatzeko.

10. BIKTIMENTZAKO INFORMAZIOA

- EAEn genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei ematen zaien arretari buruzko baliabideen mapa (Emakunderen txostena): <https://www.emakunde.euskadi.eus/indarkeria/webema01-contentemas/eu/>
- EKIM web ataria, emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzko informazio erabilgarri guztia zentralizatzen duen tresna espezializatua: <https://ekim.euskadi.eus/hasiera/>



- Erreferentziako araudia
- Definizioen glosarioa
- Sexu-jazarpeneko eta sexuan oinarritutako jazarpeneko jokabideen adibideak
- Lehen sorospen fisiko eta psikologikoak

11. ERANSKINAK

ERREFERENTZIAZKO ARAUDIA

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/54/EE Zuzentarauak, 2006ko uztailaren 5ekoak, enplegu- eta okupazio-gaietan gizonen eta emakumeen arteko aukera- eta tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzkoak, jazarpen sexista eta sexu-jazarpena definitzen ditu, eta ezartzen du egoera horiek diskriminatzailetzat hartuko direla, eta, beraz, debekatu eta zehatu egingo direla, modu egoki, proportzional eta disuasiozkoan. Sexu-jazarpenari aurre egiteko Erkidegoko Jokabide Kodea, 1991ko azaroaren 27koa, Europar Batasunak emandako arau hori prebentzioaren arloan garatzeko europar araua da.

Lanaren Nazioarteko Erakundearen 190. Hitzarmena, lan-munduan indarkeria eta jazarpena ezabatzeari buruzkoa, 2022ko maiatzaren 25ean berretsi zuen Espainiak, eta 2023ko maiatzaren 25etik dago indarrean. Lan-munduan sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari edo jazarpen sexistari aurrea hartzeko eta aurre egiteko jomuga berria da, ezartzen baitu jokabide horiek behin eta berriz edo behin bakarrik gerta daitezkeela, eta estatu kideei eskatzen die legeria bat onar dezatela, enplegatzaileei neurri egokiak eta

beren kontrol-mailarekin bat datozenak har ditzaten eskatzeko, lan-munduan indarkeria eta jazarpena prebenitzeko. Neurri horien artean daude, besteak beste, kexak aurkezteko eta ikertzeko prozedurak ezartzea, eta, dagokionean, lantokian gatazkak konpontzeko mekanismoak ezartzea; konfidentzialtasuna babestea; sexu-jazarpeneko eta/edo sexuan oinarritutako jazarpeneko jokabideen aurrean zehapen egokiak eta proportzionalak ezartzea; sexu-jazarpenak eta/edo sexuan oinarritutako jazarpenak edo jazarpen sexistak biktimengan izan ditzaketen ondorioak aitortzea, eta langileek lan-egoera batetik urruntzeko bermea izatea, errepresaliarik edo bidegabeko bestelako ondoriorik jasan gabe.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, zeinak berariaz jasotzen dituen sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena, honako hau ezartzen du 7. artikuluan —Enpleguaren eta lanaren arloetan emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzeko presako neurrien 6/2019 Errege Lege Dekretuak, martxoaren 1ekoak, aldatu zuen lege hori—:

- Zigor-kodean ezarritakoari kalterik egin gabe, lege honen ondoreetarako, sexu-jazarpena da sexu-izaerako edozein jokabide, ahozkoa zein fisikoa, baldin eta horren helburua edo ondorioa bada pertsonaren duintasunaren aurka egitea, bereziki ingurune beldurgarria, umiliagarria edo iraingarria sortzen denean.
- Sexuan oinarritutako jazarpentzat hartuko da pertsona baten sexua dela eta haren duintasunaren aurka eta giro beldurgarria, umiliagarria edo iraingarria sortzeko egiten den edozein jokabide.
- Nolanahi ere, sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena diskriminatzailetzat joko dira.
- Eskubide bat edo eskubide-aukera bat izateko sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena onartu behar bada, egoera hori sexuan oinarrituriko diskriminaziotzat hartuko da.

Eta 48. artikulua haxe ezartzen du:

1. Enpresek sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena saihesteko lan-baldintzak sustatu beharko dituzte, eta prozedura espezifikoak ezarri beharko dituzte, halakoak prebenitzeko eta halakoak jasan dituztenek egiten dituzten salaketak edo erreklamazioak bideratzeko.

Helburu horrekin, langileen ordezkariekin negoziatu beharreko neurriak ezarri ahal izango dira, hala nola jardunbide egokien kodeak egin eta zabaldu, informazio-kanpainak edo prestakuntza-ekintzak egin eta abar.
2. Langileen ordezkariak lanean sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzen lagundu beharko dute, langileak egoera horren aurrean sentsibilizatuz eta enpresa-zuzendaritzari ezagutzen dituzten eta egoera hori eragiten duten portaera edo jokaeren berri emanez.

Azken finean, arau horren arabera, enpresek sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena saihesteko lan-baldintzak sustatu beharko dituzte, eta prozedura espezifikoak ezarri beharko dituzte, halakoak prebenitzeko eta halakoak jasan dituztenek egiten dituzten salaketak edo erreklamazioak bideratzeko.

Genero-indarkeriaren eremuan, 2004ko abenduaren 28ko 1/2004 Legeak, genero-indarkeriaren aurka babes integrala emateko neurriei buruzkoak, ezartzen du botere publikoek ezin dutela beste alde batera begiratu genero-indarkeriaren aurrean, hori baita oinarritzko eskubideen aurkako eraso nabarmenetako bat, hala nola askatasunaren, berdintasunaren, bizitzaren, segurtasunaren eta diskriminaziorik ezaren aurkakoa.

Sexu-indarkeriei dagokienez, Sexu-askatasunaren berme integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoak sexu-indarkeria prebenitu eta biktima guztien eskubideak bermatu nahi ditu, biktima batzuek, zenbait diskriminazio-faktoreren ondorioz, aurkitzen dituzten oztopoak ezabatzeko oinarriak jarritz.

Horregatik, 12. artikulua haxe ezartzen du:

1. Laneko sexu-askatasunaren eta osotasun moralaren aurkako delituak eta bestelako jokabideak saihesteko lan-baldintzak sustatu beharko dituzte enpresek, eta bereziki sexu-jazarpenean eta sexuan oinarritutako jazarpenean jarri beharko dute arreta, 3/2007 Lege Organikoaren 48. artikulua horren inguruan jasotakoari jarraikiz.

Era berean, berariazko prozedurak ezarri beharko dituzte, jokabide horiek prebenitzeko eta jokabide horien biktimek egindako salaketak edo erreklamazioak bideratzeko (bereziki eremu digitalean jasandako kalteen ondorioz).
2. Enpresek langileen ordezkariekin negoziatu beharreko neurriak ezarri ahal izango dituzte, hala nola jardunbide egokien kodeak egin eta hedatzea, eta informazio-kanpainak, jarduketa-protokoloak edo prestakuntza-ekintzak egitea.

Enpresek sentsibilizazioa sustatuko dute, eta sexu-indarkerien aurkako babes integraleko prestakuntza eskainiko diete beren zerbitzura dauden langile guztiei.

Enpresek, langileen lanpostuetako arriskuak baloratzean, sexu-indarkeria sartu beharko dute, eta langileak prestatu eta horren jakinaren gainean jarri beharko dituzte.

Era berean, tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako 2022ko uztailaren 22ko 15/2022 Lege Integralak bi helburu ditu: edozein diskriminazio-mota prebenitzea eta desagerraraztea, eta biktimak babestea, prebentzioa eta erreparazioa uztartzen saiatuz.

Transexualen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko 4/2023 Legeak, bere aldetik, sexu-orientazio, sexu-identitate, genero-adierazpen eta sexu-ezaugarrietan oinarritutako jazarpen-egoerak prebenitzera eta horrelako egoeretan jardutera behartzen du.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak berariaz aipatzen du gai hori.

Lan-arriskuen prebentzioari buruzko 1995eko azaroaren 8ko 31/1995 Legeak, bestalde, sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena izaera psikosozialeko arriskutzat hartzen ditu, eta, horren aurrean, langileen osasuna babesteko prebentzio-neurriak hartu behar dira.

Azkenik, Euskadiko Kooperatiben 2019ko abenduaren 20ko 11/2019 Legeak kooperatibek beren balioak praktikan jartzeko bete beharreko jarraibideak ezartzen ditu.

TERMINOEN AURKIBIDEA

JAZARPENA • Jazarpen psikologikoa edo morala • Sexu-jazarpena • Sexuan, genero-identitate eta -adierazpenean edo orientazio sexualean oinarritutako jazarpena • Laneko jazarpena • Inguruneko jazarpena GENERO-INDARKERIA SEXU-INDARKERIAK INDARKERIA MATXISTA	LGTBIQA+ sigletan jasotako orientazio sexualen dekalogoak: • LESBIANA • GAYA • TRANSA • BISEXUALA • INTERSEXUALA • QUEERRA • ESPEKTRO ASEXUALA • Asexualitatea • Alosexuala • Aloaraua • Alozentrismoa • Demisexuala • Grisexuala • ESPEKTRO ARROMANTIKOA
JAZARPENA Oro har, hau hartzen da jazarpentzat: horretarako baimen legitimorik ez duen pertsona batek beste bat behin eta berriro zelatatzea, eta, horrela, haren eguneroko bizitza larriki kaltetzea. Jazarpenak ez du zertan indarkeriarik ekarri berekin. Honako hauek dira, zehazki, biktimaren gogoz kontra eginez gero jazarpen-delitutzat hartzen diren jokabideak: • Norbait zelatatzea, haren atzetik ibiltzea edo harekin hurbiltasun fisikoa bilatzea. • Norbaitekin harremanetan jartzea komunikabide baten bidez edo hirugarren pertsonen bitartez. • Norbaiten datu pertsonalak bidegabe erabiltzea, produktuak edo salgaiak eskuratzeko, zerbitzuak kontratatzeko edo hirugarren pertsonen harekin harremanetan jartzen laguntzeko. • Norbaiten askatasunari edo ondareari edo haren hurbilekoei erasotzea. Horrela, jokabide horietako edozeinen biktima ez da seguru sentitzen, urduri dago, eta bere eguneroko ohiturak aldatzen ditu, jazarpenaren	

ondorioz jarduteko askatasuna mugatuta ikusten baitu. Ez da eragozpen hutsa; beldurra sorrarazten da eragindako pertsonarengan.

Jazarpen psikologikoa edo morala

Honela definitzen da: «pertsona batenganako tratu iraingarria eta deskalifikatzailea, psikikoki ezegonkortzeko asmoa duena». Eraso-mota bat da, zeinaren bidez pertsona batek boterea erabiltzen baitu beste baten gainean, haren egonkortasun emozionalaren aurka doan portaera fisikoa edo hitzekoa behin eta berriro erakutsiz.

Jazarpen psikologikoak eraso egiten die pertsonaren duintasunari eta osotasun moralari, eta tratu txar psikologikoa eta abusu emozionala ekartzen ditu beti berekin. Prozesu horretan, pertsonak ziurgabetasuna eta ezintasuna jasaten ditu, eta, ondorioz, autoestimua eta bere buruarekiko segurtasuna galtzen ditu. Ez da guztiz jabetzen umiliatzen ari direla eta bere oinarritzko eskubideak urratzen ari direla. Ondorengo jazarpen-motak ere jazarpen psikologiko eta/edo moralaren modalitateak dira.

Sexu-jazarpena

2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriakoak, honela definitzen du sexu-jazarpena 7.1 artikuluan: «Sexu-jazarpena da sexu-izaerako jokabide bat sortzea, ahozkoa, ahozkoa ez dena edo fisikoa, xede nahiz ondore izateagatik pertsonaren duintasunaren aurka egitea, batez ere, larderiakoa, apalesgarria edo ofentsakoa den ingurua sortzen denean».

Zehazki, eta artikulua jasotako definizioak betetzen dituzten beste jokabide batzuk bazter utzi gabe, sexu jazarpeneko eta sexuan oinarritutako jazarpeneko jokabide posibleen zerrenda azaltzen diren portaeretako edozein hartuko da sexu-jazarpentzat.

Sexuan, genero-identitate eta -adierazpenean edo orientazio sexualean oinarritutako jazarpena

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/54/EE Zuzentarauak, enplegu eta laneko gaietan gizonen eta emakumeen aukera- eta tratu-berdintasuneko printzipioa aplikatzeari

buruzkoak, honela definitzen du sexuan, genero-identitate eta -adierazpenean edo orientazio sexualean oinarritutako jazarpena: «Jokabide hitzeko, ez-hitzeko edo fisikoak dira, sexu-izaerakoak eta hartzaileak jasan nahi ez dituenak. Jokabide horiek pertsona haren duintasunaren aurka joan behar dute edo asmo hori izan, eta, batik bat, giro beldurgarria, etsaitasunezkoa, iraingarria, apalgarria edo mingarria sortu behar dute».

Bestalde, 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriakoak, honela definitzen du sexuan oinarritutako jazarpena 7.2 artikuluan: «Sexuan oinarritutako jazarpena da pertsona jakin baten sexuarekin zerikusia duen edozein jokabide, xede nahiz ondore izateagatik pertsonaren duintasunaren aurka egitea eta larderiakoa, apalesgarria eta ofentsakoa den ingurua sortzea».

Hain zuzen, eta artikulua jasotako definizioak betetzen dituzten beste jokabide batzuk bazter utzi gabe, VI. Eranskinean azaltzen diren portaeretako edozein hartuko da sexuan oinarritutako jazarpentzat.

Laneko jazarpena

Edozein lan- edo funtzionario-jardueraren esparruan gertatzen den eraso psikologiko edo etsaitasunezkoa, zeinak jasaten duena umiliatzen baitu eta duintasunari irain larria egite baitio. Zigor Kodean tipifikatuta dago, tortura-delituen eta osotasun moralaren aurkako delituen artean.

Laneko jazarpena indarkeriazko portaera da, eraso egiten duen pertsonak langilearengan beldurra, izua, mespretxua eta adorerik eza sorrarazteko helburuz erabiltzen duena.

Inguruneko jazarpena

Inguruneko jazarpentzat hartzen diren jarrerak umiliagarriak izan daitezke, baina, sarritan, sotilak izaten dira; izan ere, horien bidez normalizatu egiten dira emakume eta gizonenganako jokabideak genero-estereotipoen arabera, edo tradizionalak femeninotzat edo maskulinotzat jo izan diren lan-portaeren arabera. Horrelako jarrerak ez daude nahitaez pertsona jakin bati zuzenduta, esplizitua ez den antolamendu-kultura baten parte baitira, baina jokabide horiekin identifikatzen diren pertsonen aurkako giroa sortzen dute.

Inguruneko jazarpenak portaera ugari hartzen ditu barne, hitzezkoak zein hitzezkoak ez direnak, kolektibo bati edo kolektibo horren ezaugarri estereotipatu batzuei zuzendutakoak; horiek, sexu-onurak lortzeko helbururik ez izan arren, desberdinkeriazko giroa sortzen dute..

GENERO-INDARKERIA

Hau da genero-indarkeria: harreman afektiboen bidez emakumeei lotuta daudenek edo egon direnek (bikotekideek edo bikotekide ohiek) haien kontra erabiltzen dutena.

1/2004 Lege Organikoak honela definitzen du genero-indarkeria: «Indarkeriazko egintza oro (...) emakumeen aurka erabiltzen dutenean horien ezkontide direnek edo izan direnek, edo horiekin antzeko maitasun-harremanak dituztenek edo izan dituztenek, nahiz eta elkarbizitarik ez izan, bereizkeriaren, desberdintasun-egoeraren eta gizonak emakumeei ezartzen dizkieten botere-harremanen agerpen gisa. (...) emakumeari kalte edo sufrimendu fisikoa, sexuala edo psikologikoa eragiten diona edo eragin diezaiokeena, bai eta ekintza horien mehatxuak, hertsapena edo askatasuna arbitrarioki kentzea ere, bizitza publikoan zein pribatuan gertatzen badira ere».

SEXU-INDARKERIAK

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) honela definitzen du sexu-indarkeria: «Sexu- ekintza oro, sexu-ekintza bat gauzatzeko saiakera, nahi ez diren komentario edo iradokizun sexualak, edo pertsona baten sexualitatea beste pertsona batek behartuta merkaturatzeko edo beste edozein modutan erabiltzeko ekintzak, pertsona horrek biktimarekin duen harremana edozein izanda ere eta edozein esparrutan, etxea eta lantokia barne».

10/2022 Lege Organikoak, irailaren 6koak, sexu askatasunaren berme integralari buruzkoak, honako definizio hau ematen du sexu-indakeriaz: «Sexu-izaerako edozein ekintza onartu gabea, edo bizitza sexualaren garapen librea baldintzatzen duena edozein eremu publiko edo pribatuan, eremu digitala barne». Estatistikaren eta erreparazioaren ondoretarako, feminizidio sexuala ere sartzen da aplikazio-eremuan, hau da, hurrengo paragrafoan sexu-indarkeriatzat definitutako jokabideei lotutako emakumeen eta neskatoen hilketa.

Nolanahi ere, sexu-indarkeriatzat jotzen dira Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren II. liburuko VIII. tituluari jasotako delituak, hots, emakumeen mutilazio genitala, ezkontza behartuak, konnotazio sexualeko jazarpena eta sexu-ustiapenera bideratutako gizakien salerosketak. Arreta berezia eskainiko zaie eremu digitalean egiten diren sexu-indarkeriei; horren barruan sartzen dira sexu-indarkeriako ekintzen hedapena, baimenik gabeko pornografia eta, betiere, haur-pornografia, baita baliabide teknologikoen bidez egindako sexu-estortsioa ere.

INDARKERIA MATXISTA

Indarkeria matxistaren jatorrian gizarte-mandatu bat dago, harreman-egitura dikotomiko eta hierarkiko batean oinarritua. Egitura horrek bi mundu sortzen ditu determinismo biologikotik abiatuta, bi errealitate: arra/emea. Eta bakoitzari bere ezaugarriak, gaitasunak eta funtzioak definitzen dituzten estereotipoak eta rolak ematen dizkio, gizon/emakume kategoriak sortuz. Definizio hori, gainera, besteari kontrajarrita sortzen da, eta balio desberdina ematen zaio.

Hau da, mundu maskulinoa femeninoari kontrajarrita definitzen da, eta alderantziz. Era berean, kategoria bakoitzari balio bat ematen zaio, eta, binomio horretan, maskulinoa nahi den arketipoarekin parekatzen da, eta horren definizioan sartzen ez den guztia, berriz, eragozpena da. Horrez gain, portaera heterosexualaren araudi bera inposatzen zaie bi sexuei/generoei. Mandatu horretatik kanpo geratzen dira —eta, ondorioz, diskriminatuta— sexualitatea bizitzeko gainerako moduak.

Sexu/genero/sexualitate mandatua betetzen ez duten pertsona guztiek —dela haien errealitate biologikoagatik, portaeragatik, identitateagatik eta/edo adierazpenagatik— indarkeria matxista jasateko arriskua izango dute, zigor gisa, araua urratzeagatik. Hortaz, indarkeria matxista jasan dezakete emakumeek, LGTBIQA+ kolektiboko kideek, intersex gorputzek, feminitatera hurbiltzen diren gizonak eta abarrek.

LGTBIQA+ SIGLETAN JASOTAKO ORIENTAZIO SEXUALEN DEKALOGOA:

Beste asko badaude ere, erakarpen sexuala eta erakarpen afektibo edo erromantikoa soilik aipatuko ditugu dekalogo honetan. Biak ere elkarrengandik bereiz daitezke. Batzuetan, dimentsio horiek gainjarrita azaltzen dira (adibidez, pertsona bat alosexuala, heterosexuala eta heterorromantikoa bada), eta, beste batzuetan, paraleloan (adibidez, pertsona bat alosexuala eta homorromantikoa bada, edo asexuala eta birromantikoa, beste konbinazio askoren artean).

LESBIANA

Beste emakume batzueganako erakarpen sexual eta erromantikoa sentitzen duen emakumea. «Homosexualaren» ordezkotzat esamoldea da, emakumeek beren orientazio sexuala adierazi edo errebindikatzeko erabil dezaketena.

• **Lesbofobia:** emakume lesbianekiko edo halakotzat hartzen direnekiko aurreiritzi, estereotipo eta estigmatizazio oinarritutako

gaitzespena, diskriminazioa, ikusezintasuna, isekak eta bestelako indarkeria-motak, bai eta haien identitate sexualekikoak edo lesbikotzat jotzen diren jardunbide sozial eta sexualekikoak ere. Bestelako indarkeria-motak eragin ditzake, hala nola orientazio sexualagatiko gorroto-krimena. Emakume lesbianen orientazio sexualagatiko hilketari **lesbofeminizidio** esaten zaie, nahiz eta horren tipifikazio juridikorik ez egon. Homofobiatik bereizten da, indarkeria- eta zapalkuntza-motak oso espezifikoak baitira generoaren arabera, «bortxaketa zuzentzaileen» kasuetan gertatzen den bezala.

GAYA


Beste gizon batzueganako erakarpen erotiko eta afektiboa sentitzen duen gizona. Jatorri medikoa duen «homosexualaren» ordezkotzat esamoldea da. Homosexualak edo lesbianak diren gizon eta emakume batzuek «gay» hitza hobesten dute, horren eduki politikoagatik eta herri-erabileragatik.

TRANSA

Hitz horrek genero-identitatearen eta/edo -adierazpenen askotariko aldaerak adierazten ditu, hala nola transgresioa, trantsizioa edo berrespena, barne direla transexualak, transgenderoak (hau da, bitarrak ez diren pertsonak, ageneroak, genero jariakorrekook, trabestiak eta dragak, besteak beste). Horien guztien izendatzaile komuna da jaiotzeko sexua ez datorrela bat pertsonaren genero-identitatearekin eta/edo -adierazpenekin.

Transek ebakuntza kirurgikoak edo tratamendu medikoak ezinbestean egin beharrik gabe eraikitzen dute beren genero-identitatea. Hala ere, litekeena da ebakuntza horiek nahitaezkoak izatea trans pertsonen genero-identitatea eraikitzeko eta ongizatea lortzeko. Bada joera bat transten nazioarteko mugimenduaren barruan, tradizionalki aipatzen ziren bereizketen izendapena ezabatzeke, hau da, «ttt» horiek ez erabiltzeko, izendapen hori patologizatzailea izan daitekeelako eta ondorio diskriminatzaileak izan ditzakeelako.

Izan ere, emakume eta gizon zisgeneroak dauden bezala, emakume eta gizon transak ere badaude, eta izaera horrek berekin dakar eskubideez eta aukera- zein tratu- berdintasunaz gozatu ahal izatea, sozialki eta kulturalki baldintzatutako genero- eraikuntzari dagozkion baldintza berdinetan.



BISEXUALA

Bisexualak beste genero bateko zein genero bereko pertsonenganako erakarpen erotikoa eta afektiboa sentitzeko gaitasuna du, baita

pertsona horiekin harreman intimoak eta sexualak izateko gaitasuna ere. Horrek ez du esan nahi sentimendu hori intentsitate berarekin, aldi berean eta modu berean sumatzen duenik, ezta genero bereko edo beste genero bateko pertsona guztienganako erakarpena sentitzen duenik ere.

INTERSEXUALA

Pertsona intersexualen anatomia edo fisiologia sexuala ez dator guztiz bat kulturalki maskulinitzat eta femeninitzat hartzen diren bi sexuetarako definitutako estandarrekin. Intersexualitateak zenbait aldaera ditu. Ez da kategoria bakar bat, baizik eta termino generiko bat. Horrela, gerta daiteke aldaketa intersexualak dituzten pertsonen berezko ezaugarri sexualak bi sexuetakoak izatea — neurri desberdinean— edo ez izatea ez sexu batekoak ez bestekoak. Intersexualitatea ez da beti agerikoa izaten jaiotzean, aldaketa batzuek pubertarora edo nerabegarora arte irauten dute, eta beste batzuk ezin dira nabaritu azterketa

medikorik gabe, baina lehen edo bigarren mailako begi bistako anatomia sexualean ager daitezke. Giza eskubideen ikuspegitik — identitaterako eta nortasunaren garapen librerako eskubideaz ari baita— eta munduko pertsona intersexualen mugimenduek bultzatutako kontzeptu horren errebindikazioa abiapuntu hartuta, egokitzen hartzen da intersexual terminoa, eta baztertzekoak dira, berriz, duela urte batzuk eremu medikoetan erabilitako hermafroditismoa edo pseudohermafroditismoa.

QUEERRA

Querrek gaitzetsi egiten dute genero-binarismoa, eta ez dute zisheteroaraua betetzen. Hau da, ez dira identifikatzen ez sozialki esleitutako jaiotzeko sexuarekin, ez bestearekin, ez ezeinekin. Pertsona horiek ez dute identitate finkorik erakusten, baizik eta adierazpen eta esperientzia hauek:

- 1. Genero batetik bestera txandaka mugitzen direnak
- 2. Gizartean nagusi diren bi generoen artikulazioaren bidez sortzen direnak


- 3. Identitate-aukera berriak eskaintzen dituztenak; beraz, haien kasua ez da zehazki sexu batetik bestera egiten den trantsizioa, transexualekin gertatzen den bezala.

Querrek ez dute onartzen gizonak eta emakumeak aipatzeko erabiltzen diren hitzekin izenda ditzaten; adibidez, gaztelaniaz, «todos y todas», «nosotros y nosotras» eta lanbideak adierazteko «doctores y doctoras». Aitzitik, hitz horietako azken bokala (generoari dagokiona) kendu eta, horren ordez, «e» edo «x» letrak jartzeko eskatzen dute; adibidez, «todes» edo «todxs», «nosotrxs», «doctorex» eta abar..

ESPEKTRO ASEXUALA

Erakarpen sexualik sentitzen ez duten pertsonak sartzen dira espektro asexualean. Gerta liteke batere erakarpen sexualik ez sentitzea, edo egoera jakin eta mugatu batzuetan bakarrik sentitzea; hau da, oso aldakorra da erakarpen sexualarekiko duten harremana.

Asexualitatea: erakarpen sexualik ez sentitzea ezaugarri duen orientazio sexuala.



- Alosexualak:** erakarpen sexuala sentitzen duen pertsona.
- Aloaraua:** gizarteko arau inplizitua, zeinak inposatzen baitu pertsona guztiek sexu-erakarpena sentitu behar dutela.

- **Alozentrismoa:** errealitate alonormatiboak erdigunean jartzea, espektro asexualeko beste errealitate eta bizipen batzuk alde batera utzita.
- **Demisexuala:** lotura afektibo bat duenarenganako erakarpen sexuala sentitzen duen pertsona. Horrek ez du esan nahi demisexualek lotura afektiboa duten pertsona guztienganako erakarpen sexuala sentitzen dutenik, baizik eta lotura hori behar dutela erakarpen sexuala sentitzeko.
- **Grisexuala:** erakarpen sexuala egoera mugatu batzuetan sentitzen duena, edo alosexualak baino hein txikiagoan sentitzen duena.

ESPECTRO ARROMANTICO

Askotariko orientazio erromantikoetako bat da arromantizismoa. Orientazio sexualen eskema berari jarraitzen dio, baina, kasu honetan, erromantizismoari dagokionez (adibidez, homorromantikoa, heterorromantikoa, birromantikoa eta abar).

Pertsona arromantikoak besteenganako erakarpen erromantiko txikia sentitzen du, edo ez du batere sentitzen.

Beren burua arromantikotzat jotzen duten pertsonak beste modu batera bizi dezakete erromantzea, arauzko gizarte-usadioetatik kanpo. Pertsona erromantikoek beste pertsona batzuekin horrelako harreman-mota batean egoteko behar emozionala dute; pertsona arromantikoek, berriz, nahikoa izaten dute adiskidetasuna edo bestelako harreman ez-erromantikoak.

Gainera, pertsona arromantikoek genero bateko edo batzuetako pertsonenganako erakarpina senti dezakete; beraz, arromantikoak ez ezik, asexualak, heterosexualak, homosexualak, bisexualak eta abar ere izan daitezke.

SEXU-JAZARPENeko ETA SEXUAN OINARRITUTAKO JAZARPENeko JOKABIDEAK

ASEXU-JAZARPENA

- Lanposturako sarbidea, lanpostuan jarraitzea edo lanpostuaren baldintzak mesede sexual bat onartzearen mende jartzea, nahiz eta baldintzapen horrek dakarren mehatxu esplizitu edo inplizitua benetan ez gauzatu («xantaia sexual» deitzen zaio).
- Sexu-iradokizun edo -eskaerak onartzen ez dituen errepresaliekin mehatxatzea.
- Errepresaliekin mehatxatzea sexu-jazarpina salatzen edo frogatzen dutenak nahiz ikerketetan laguntzen edo parte hartzen dutenak, bai eta mota horretako edozein jokabideren aurka egiten dutenak ere, jazarpenaren biktimak beraiek izan edo hirugarrenak izan.
- Pertsona bat sexu-harremanak izatera derrigortzea.
- Pertsona bat hitzordu batera gonbidatzea edo pertsona bati hitzordua eskatzea, aurretik ezetz esan arren.

- Beste pertsonak nahi ez duen kontaktu fisikoa nahita egitea, hala nola zirria, ukitzea, besarkada, zapladatxoa edo atximurkada.
- Gehiegi hurbiltzea, mugimendua zailtzea, zokoratzea edo pertsona batekin bakarrik egotea nahita bilatzea, harekin kontaktu fisikoa izateko.
- Sexu-gaiei buruzko telefono-deiak egitea edo sexu-gaiei buruzko eduki iraingarriak dituzten gutunak, mezuak, argazkiak, bideoak edo bestelako materialak bidaltzea.
- Sexu-iradokizunak egitea edo sexu-harremanak presiorik gabe eta modu irekian eskatzea.
- Norbaiten gorputzari adi-adi edo lizunkeriaz begiratzea.
- Pertsonaren irudi fisikoa edo itxura, izaera edo orientazio sexuala edo genero-nortasuna edo -adierazpena etengabe komentatu edo baloratzea.

- Pertsona baten bizitza sexualari buruzko galderak egitea edo konnotazio sexualeko zurrumurruak zabaltzea.
- Beste pertsona bati norberaren trebetasun edo gaitasun sexuali buruz hitz egitea.
- Toki pribatu batean, hala nola bainugela edo aldagela batean, beste pertsona bat isilpean edo ezkutuan behatzea.
- Sexuaren ikuspegitik eduki umiliagarriak, iradokitzaileak edo pornografikoak dituzten irudiak erabiltzea eta zabaltzea REAS Euskadi sarearen ingurunean.
- Keinu, soinu edo mugimendu lizunak egitea.
- Eduki sexualeko txisteak kontatzea edo piropoak esatea.
- Zigor Kodean tipifikatuta dauden edozein motatako sexu-erasoak.

SEXUAN OINARRITUTAKO JAZARPENA

- Pertsona bati tratu kaltegarria ematea, haurdunaldiarekin, amatasunarekin, aitatasunarekin edo beste familia-zaintza batzuk bere gain hartzearekin lotuta.
- Pertsona baten deskalifikazio publiko edo pribatuak, sexua, lana, gaitasunak, konpetentzia teknikoak edo trebetasunak direla eta.
- Esaera sexistak eta iraingarriak erabiltzea, pertsona baten gaitasunak, konpetentziak edo trebetasunak gutxiesten dituztenak haren sexua dela eta, hala nola «emakumea izan behar zenuen», «...(e)ko soilik balio duzu» eta abar.
- Egiten diren ekarpenak, iruzkinak edo ekintzak aintzat ez hartzea, pertsonaren sexua dela eta.
- Hierarkian gorago dauden emakumeen aginduak edo jarraibideak betetzeari uko egitea, haien sexua dela eta.
- Pertsona baten lana sabotatzea edo lan egiteko baliabide egokiak (informazioa, dokumentazioa, ekipamendua eta abar) eskura ditzan nahita eragozte, haren sexua dela eta.
- Pertsona baten sexuan oinarritutako agindu iraingarriak ematea.
- Pertsona bati bere gaitasunetik beherako erantzukizunak ematea, haren sexua dela eta.
- Norbaiti muturreko eta etengabeko zaintza egitea, haren sexua dela eta.
- Pertsona bat jarrera etorkor edo paternalistarekin tratatzea, haren sexua dela eta.
- Tradizionalki beste sexuari esleitutako lanak egiten dituzten pertsonak barregarri uztea.
- Pertsona bati dagozkion baimenak arbitrariotasunez ukatzea, haren sexua dela eta.
- Pertsona bat lan-eremuan diskriminatzen duen jarrera bat hartzea, haren sexua dela eta.
- Indar fisikoa erabiltzea sexu bat bestearen gaineratik dagoela erakusteko.
- Pertsona bati modu iraingarrian hitz egitea, haren sexua edo sexu-orientazioa dela eta.
- Pertsona bat nahita ez tratatzea identifikatzen den generoarekin.
- Umore sexista erabiltzea.

LEHEN SOROSPEN FISIKO ETA PSIKOLOGIKOAK

Gertaera traumatiko baten ondoren, ukitutako pertsona edo pertsonak zaurgarritasun eta sufrimendu handiko egoeretan egon daitezke. Lehen sorospen psikologikoen (LSPen) helburua da jokabideak normalizatzea eta ondorioak zein eragin traumatikoa murriztea. Edozein pertsonak egin ditzakeen berehalako jarduerak dira.

Hasi aurretik, komeni da ukitutako pertsonarekin edo pertsonekin leku seguru eta lasai batera joatea, konfidentzialtasuna bermatzeko eta askatasunez hitz egiteko. Leku horretan, ura, paperezko mukizapiak, mantak eta gozokiak edo azukredun elikagaiak edukitzen saiatuko gara.

1. Aurkezpena

Jarrera ez-intrusiboa eta lasaia izan behar dugu ukitutako pertsonekin hasierako harremanak ditugunean. Lehenik eta behin, geure burua aurkeztuko dugu eta gure egitekoa zein den azaldu.

2. Lasaitzea eta babestea

Biktimek jakin behar dute beren oinarritzko premiak aseko direla, hau da, berehalako segurtasun fisiko eta emozionala bermatuko zaiela, babestuta egongo direla eta, behar

izanez gero, ura edan eta zerbait jan ahal izango dutela. Neska-mutikoak badira, senitartekoekin bildu nahi duten galdetuko diegu.

3. Emozioei eustea

Biktima asko emozionalki jota edo shock-egoeran egoten dira; horregatik, komeni da ukitutako pertsoneri lasaitasuna eta orientazioa ematea. Zentzu horretan, sinistu eta lagundu egingo diegula ziurtatuko diegu.

4. Informazioa biltzea

Ukitutako pertsoneri ez diegu itaunketarik egingo. Aitzitik, haiengana hurbildu eta zerbait behar duten eta berehalako zer kezka dituzten galdetuko diegu, hala nola non eta nola lo egingo duten gauean, jateko gogorik duten, senitartekoekin harremanetan jarri nahi duten eta abar; ondoren, laguntza praktikoa emango diegu.

5. Informazio zehatz eta aproposa eskaintzea

Informazio zehatza emango diegu, eta bereziki zintzo eta fidagarriak izango gara; alegia, ez diegu geure esku ez dagoen ezer

aginduko. «Dena ondo joango da» esateak kalte handiagoa egin diezaieke gertaturikoa sentitzen dugula eta nola sentitzen diren ulertzen dugula esateak baino; hartara, haien erreakzioak normalak direla ulertzen lagunduko diegu. Une horretan, jarduteko protokolo bat dugula eta eman beharreko hurrengo urratsak zein diren adieraziko diegu.

6. Laguntza praktikoa

Fase horretan, laguntza eta informazio praktikoa emango zaie ukitutako pertsoneri, berehalako kezkei aurre egiten eta antsietatea arintzen laguntzeko. Laguntza praktikolari buruzko adibideak: haien senitartekoekin harremanetan jartzea, gaua non igaroko duten argitzea eta abar.

7. Egoerari aurre egiteko jarraibideak ematea

Pertsoneri krisira egokitzen eta hari aurre egiten laguntzea baliagarria da beren susperraldian rol aktiboa har dezaten. Lehen egunak kudeatzeko eta intzidentearen ondorengo erreakzio psikologikoak normalizatzekeo tresnak

ematea funtsezkoa da egoera traumatikoari eraginkortasunez aurre egiteko.

1. Laguntza-sare sozialarekiko eta laguntza-baliabideekiko lotura. Amaiera

Garrantzitsua da ukitutako pertsonen beren laguntza-sare sozialekin eta eskura ditugun laguntza-baliabideekin harremanetan jartzen laguntzea.

Amaitzeko, agurtu aurretik, behar dituzten laguntza-baliabideekin (osasun-laguntzarekin, gizarte-zerbitzuekin, polizia-agenteeekin eta abarrekin) harremanetan utzi behar ditugu ukitutako pertsonak.

